

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

**Diputatu Nagusiaren Kabinetearen Zuzendaritzaren 2540/2018 Ebazpena, abenduaren 20koa, agintzen duena Arabako Foru Aldundiko sailek hainbat erakunde eta elkarerekin izenpetutako lankidetzak hitzarmenen laburpenak argitaratzeko**

Diputatu Nagusiaren Sailaren Idazkaritza Teknikoko eta Herritarrak Atenditzeko Zerbitzuari lankidetzak hitzarmenen hainbat kopia bidali zaizkio, Arabako Foru Aldundiko sailek behar bezala sinatuta.

Kontuan harturik zer xedatzen duten horri buruz 40/2015 Legeak (urriaren 1ekoa, sektore publikoaren araubide juridikoarena) 47. artikuluan eta hurrengoetan; 52/1992 Foru Arauak (abenduaren 18koa, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoarena) 79. artikuluan, eta Diputatuen Kontseiluaren maiatzaren 11ko 129/1993, urriaren 29ko 95/1996 eta maiatzaren 27ko 53/1997 foru dekretuek,

eta aintzat izanda lehen aipatutako lege aginduak eta aplikatu beharreko gainerakoak, eta abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoarenarenak, 102. artikuluan, eta Diputatuen Kontseiluaren urriaren 29ko 95/1996 Foru Dekretuaren hirugarren apartatuak xedatutakoari jarraituz dagozkidan eskumenak erabiliz, hau

#### EBAZTEN DUT

Agintzea ALHAOn argitaratu daitezela lankidetzak hitzarmen hauek:

#### **IZENPETZE EGUNA: 2018ko irailaren 27a**

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Cristina González Calvar, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko diputatua.

Bestetik: Esperanza Gómez de la Iglesia, Merkataritzako Agenteen Arabako Elkargo Ofizialaren lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: erakunde bakoitzari modu osagarrian bere helburuak betetzeko dagozkion ekintzak optimizatzea.

Ekarpenak: 10.000,00 euro, Arabako Foru Aldundiaren 2018ko ekitaldirako gastuen aurrekontuaren kontura.

Indarraldia: izenpetzen den egunaren hurrengotik hitzarmenean jasotako eginbeharrak bete arte.

#### **IZENPETZE EGUNA: 2018ko urriaren 9a**

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Marian Olabarrieta Ibarrondo, Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatua.

Bestetik: Maite Sebal Arrien, Gasteizko Elizbarrutiko Cáritasen zuzendaria.

Hitzarmenaren xedea: gizarteratze programa bat garatzeko lankidetzaz hitzarmena luzatzea.

Finantzaketa: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea: 221.593,00 euro.

Indarraldia: 2018ko abenduaren 31.

**IZENPETZE EGUNA: 2018ko urriaren 23a**

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Marian Olabarrieta Ibarrondo, Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatua.

Bestetik: Juan Carlos del Campo Bidaurrázaga, Urgatzi Elkartearen ahaliduna.

Hitzarmenaren xedea: bakarrik dauden adingabe atzerritarrentzako egoitza bidezko harrera programa kudeatzea.

Finantzaketa: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea: 3.406.866,96 euro.

Indarraldia: 2018ko abenduaren 31.

**IZENPETZE EGUNA: 2018ko urriaren 24a**

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Igone Martínez de Luna Unanue, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua.

Bestetik: Elena Ramírez Izquierdo, Trebiñuko Konderriko Udaleko alkatea.

Hitzarmenaren helburua: "ARNASTEN: Euskaraldirik tiraka" programaren gastuak finantzatzea.

Indarraldia: izenpetzen denetik 2018ko abenduaren 31ra arte.

**IZENPETZE EGUNA: 2018ko urriaren 30a**

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Marian Olabarrieta Ibarrondo, Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatua.

Bestetik: María Carmen Arroyo Santamaría, Asafes Buruko Gaixotasunak jotako Gaixoen eta haien Senideen Arabako Elkarteko lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: buruko gaixotasunak jota dauden pertsonentzako eguneko zentro bat mantentzeko lankidetzaz hitzarmena luzatzea.

Finantzaketa: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea: 287.839,00 euro.

Indarraldia: 2018ko abenduaren 31.

**IZENPETZE EGUNA: 2018ko urriaren 31**

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Igone Martínez de Luna Unanue, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua.

Bestetik: Mikel Herrador Iriarte, Kanpezu - Arabako Mendialdeko Kuadrillako lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: "Arabako Mendialdeko eskualdean euskararen erabilerarako jauzia bizkortzeko asmoz, euskarazko guneak zabaldu eta gizarte aktibazioan oinarritutako estrategia lagungarriak garatu" programak sortutako gastuak finantzatzea.

Indarraldia: izenpetzen denetik 2018ko abenduaren 31ra arte.

**IZENPETZE EGUNA: 2018ko azaroaren 13a**

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Marian Olabarrieta Ibarrodo, Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatua.

Bestetik: Olga Sanchez Corujo, JEIKI fundazioaren zuzendari-kudeatzailea.

Hitzarmenaren xedea: nerabe, guraso eta gizarte bitartekarientzako "Hazgarri" arreta eta laguntza programak gauzatzeko lankidetzak hitzarmena luzatzea.

Finantzaketa: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea: 17.160,11 euro.

Indarraldia: 2018ko abenduaren 31.

**IZENPETZE EGUNA: 2018ko azaroaren 13a**

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Marian Olabarrieta Ibarrodo, Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatua.

Bestetik: Gemma Argote Saenz de Buruaga, "Adap" Presoen Laguntzarako Elkarteko lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: Arabako espetxeko emakume presoen laguntzarako etxebizitza baten funtzionamendurako lankidetzak hitzarmena luzatzea.

Finantzaketa: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea: 188.558,13 euro.

Indarraldia: 2018ko abenduaren 31.

**IZENPETZE EGUNA: 2018ko azaroaren 13a**

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Marian Olabarrieta Ibarrodo, Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatua.

Bestetik: Bartolomé Jimenez Gracia, Gao Lacho Drom elkarteko lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: 6 eta 16 urte bitarteko adingabeentzako eguneko zentroa eta esku-hartze familiarreko programa espezializatua garatzeko lankidetzak hitzarmena aldatzea eta luzatzea.

Finantzaketa: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea: 145.997,78 euro.

Indarraldia: 2018ko abenduaren 31.

**IZENPETZE EGUNA: 2018ko azaroaren 13a**

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Marian Olabarrieta Ibarrodo, Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatua.

Bestetik: Bartolomé Jimenez Gracia, Gao Lacho Drom elkarteko lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: ijitoak Arabako Lurralde Historikoan gizarteratzeko aurreprestakuntzarako zerbitzu bat garatzeko lankidetzaz hitzarmena aldatzea eta luzatzea.

Finantzaketa: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea: 121.304,60 euro.

Indarraldia: 2018ko abenduaren 31.

#### **IZENPETZE EGUNA: 2018ko azaroaren 13a**

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Marian Olabarrieta Ibarrondo, Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatua.

Bestetik: Bartolomé Jimenez Gracia, Gao Lacho Drom elkarteko lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: elkartearen funtzionatzea eta jarduerak garatzea.

Finantzaketa: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea: 173.306,24 euro.

Indarraldia: 2018ko abenduaren 31.

#### **IZENPETZE EGUNA: 2018ko azaroaren 13a**

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Marian Olabarrieta Ibarrondo, Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatua.

Bestetik: Bartolomé Jimenez Gracia, Gao Lacho Drom elkarteko lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: droga mendekotasunei aurrea hartzeko eta ijito toxikomanoak eta toxikomano ohiak birgaitzeko eta birgizarteratzeko programa garatzeko lankidetzaz hitzarmena aldatzea eta luzatzea.

Finantzaketa: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea: 53.303,10 euro.

Indarraldia: 2018ko abenduaren 31.

#### **IZENPETZE EGUNA: 2018ko azaroaren 21a**

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Ramiro González Vicente, Arabako diputatu nagusia.

Bestetik: Joseba Fernández Calleja, Kanpezu - Arabako Mendialdeko Kuadrillako presidentea.

Hitzarmenaren xedea: Aitortzea Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorra eta Kanpezu-Arabako Mendialdeko Kuadrillaren Erregistro Orokorra itundutako erregistro gisa, hitzarmena sinatzen duten administrazioetako edozein organori zuzendutako idazkiak bertara agertuz haientan aurkeztu ahal izateko, hitzarmen honetan aurreikusitako kasuetan.

Indarraldia: lau urte, izenpetzen den egunetik aurrera. Sinatzaileek gehienez ere beste lau urtera arteko luzapena adostu ahalko dute edo iraungitzea.

#### **IZENPETZE EGUNA: 2018ko abenduaren 4a**

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Cristina González Calvar, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko diputatua.

Bestetik: Marta Bengoechea Fuentes, Gasteiz On Gasteizko Hiri Merkataritza Sustatzeko Elkarteko lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: erakunde bakoitzari modu osagarrian bere helburuak betetzeko dagozkion ekintzak optimizatzea.

Ekarpenak: 60.000,00 euro, Arabako Foru Aldundiaren 2018ko ekitaldirako gastuen aurrekontuaren kontura.

Indarraldia: izenpetzen den egunaren hurrengotik hitzarmenean jasotako eginbeharrak bete arte. Diruz lagunduko diren jarduerak hitzarmena sinatu baino lehen egin ahal izango dira, baldin eta bigarren klausulan xedatutakoa betetzen badute.

**IZENPETZE EGUNA: 2018ko abenduaren 11**

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Cristina González Calvar, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko diputatua.

Bestetik: Josu Iñaki Erkoreka Gervasio, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren ordezkari.

Hitzarmenaren xedea: administrazio elektronikoko oinarritzko baliabideak elkarri ematea.

Indarraldia: lau urte, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik aurrera.

Luzapena: epe hori amaitu aurretik, hitzarmenaren sinatzaileek edozein unetan adostasunez erabaki ahalko dute gehienez ere beste lau urterako luzatzea, edo iraungitzea.

Gasteiz, 2019ko urtarrilaren 7a

*Diputatu Nagusiaren Kabinetearen jarduneko zuzendaria*  
**ELENA FERREIRA SEBASTIÁN**